

The background of the entire page is a light grey-blue textured surface. It is decorated with various hand-drawn style elements: solid dark blue hearts of different sizes, white hearts with dark blue outlines, and white daisy-like flowers with dark blue centers. Some elements are scattered across the top half, while others are fainter and more integrated into the background.

Komunikazio bideak

Bideo deia.

Mugikorrera audio mezua.

Whatsappa.

E-posta.

Albokoari isilka pasatako papertxoak.

Hozkailuko post-ita.

Postala.

Aurrez aurreko elkarriketa.

...

Mezua helarazteko, beste zein komunikazio bide erabili izan duzu inoiz?

Zertan trebatuko gara...


Bertsotan, elkarri mezuak labur eta azkar pasatzen ariko gara: puntuka!

Pausoa emango dugu, hala, 8ko txikira.

Plazara!

Behin gelan trebatuta, ausartuko al gara puntuka aritzen beste gelakoen aurrean?

Komunikazio tresnen inguruan osatzen ditugun bertsoak ere egokiak izan daitezke oso ikastetxeko webgunean zein aldizkarian zabaltzeko.





Sarean harrapatuta

Nerea Ibarzabal Salegi

Hitz politak edo muxuak bidaltzeko, modu errazena whatsapp zaigu egun. Mendekotasuna ere badugu sare sozialekin... Bertsoei oinak falta zaizkie. Ea puntu bakoitzean oin egokia hautatzen dugun!

Doinua: Zer da gaur Donostian Hamarreko txikia

1 Etxe guztietako kide berri **hori** laztantzea gustatzen zaiguna gozo biltzen duguna ez dadin mobilak bateria beti gori-..... beste inor ez dugu zaintzen horren **ongi**.

gori askori erori

2 Mundu berri bat sortu dugu behatz **trebez** sare sozialei esker gertu daude Aulesti, Massachusets eta baina sare denekin gertatzen den sartzea erraza da ateratzea **ez**.

lege, Buenos Aires bere,

3 Whatsapp-a da batasun bezain **bakardade** sentipenak bihurtzen dituen Jajajaja, jejeje pistola, gero bi malko eta zazpi bihotz aurpegiarik aldatu ere egin **gabe**.

klabe pare ziare

4 Hondartzan eguzkitan nahiz pastel bat **jaten** Instagram-en gordeta mila momentuak ez digu nahiko poz izozten ez badugu **selfie** txukun denek pozik gaudela ikusi **dezaten**.

enaten oroit, apen baten

5 Asmatu ditzakegu izana, **izena** baina jakinik zein den jarrera hemen haizeak ez du eramaten hobe ez egitea sarean aurrez aurre egingo ez **genukeena**.

barrena dena zuena

6 Amaraun txikienek daukaten **lanketa** futboleko ate bat edo salabardo berde bat arraintxo ez dezagun hainbeste maitatu sarerik sozialenak kanpoan **daude ta!**

tableta erraketa beteta

Emotikonoak

Aitor Mendiluze Gonzalez



“Ados!”, “ez dakit ba...”, “bai zera!” edo “kaka zaharra!” esateko, irudiak erabiltzen ditugu. Marraztu dezagun kopia bakoitzean deskribatzen den emotikonoa: ea asmatzen dugun zein den!

Doinua: Kontu barri bat suzedidu da !!
Kopia handia



Barrez lehertu eta malkoak sortzen zaizkit **azkenean** bidali duzun txiste txar hori irakurtzen **dudanean**.



Begiak erdi itxiak eta ahoa zuzen, **serio** emotikono honek benetan triste nagoela **dio**.



Irribarrea zabaldu eta bi begiak **irekita** daukadan poza erakusteko emotikono **polita**.



Bi malko ibai bi begietan ahoa zabalik **dela** adierazi nahian bezala hunkituta **nagoela**.



Nire begiak bi bihotz dira konturatu al **zara zu?** Ezin dezaket disimulatu maiteminduta **naukazu**.



Begi batekin keinu bat eta mingaina dauka **kanpoan** argi uzteko ziria sartu dizudala **oraingoan**.



Niretzat ere zerbait goxoa izaten duzu beti **zuk** eta eguna alaitzearren muxu hau bidaltzen **dizut**.



Ahoa beherantz okertu eta gorri-gorri **aurpegia** zerbaitegatik oso haserre nagoela **alegia**.

Mezua erantzun

Uharte galduan bizi den naufragoari botila bidez iristen zaizkio mezuak. Guk, berriz, beste sei bidetatik jaso berri ditugu mezu laburrak. Gure erantzunak moztu egin dira, ordea... **Puntu erdia** osatzea baino ez zaigu falta!

Doinua: Ikusi nuenean
Kopla txikia

TELEFONO DEIA

Ez dut ondo entzuten
berriro **moztu da?**

.....
zure **kobertura** .

BIDEO DEIA

Nola zaude oraindik
pijama **jantzita?**

.....
ez al da **polita?**

E-POSTA

Mezu hau birbidali
irakasleari.

.....
gela **guztiari** .

WHATSAPPA

Bidaliko al didazu
atzoko **selfia?**

.....
behar dut **wifia** .

POSTALA

Itzalean ederki
nago **argazkian.**

.....
palmondo **aupian** .

AURREZ AURREKOA

Zerbait esan nahi dizut,
etorri, **etorri...**

.....
aurpegia **gorri** .

Jolasa

Kodea deszifratzen

Jolas gaitezen beste taldearen kodea deszifratzen. Hara zer egingo dugun:

- 1.- Bi talde elkartu eta aurrez aurre jarriko gara.
- 2.- Zutabe bakoitzaren laukietan, goian ageri den bukaerarekin hoscideak diren oinak idatziko ditugu. Erreparatu errimak zein familiatakoak diren!
- 3.- Lauki guztiak bete ondoren, beste taldeari lauki baten kokagunea esango diogu (adibidez: -ela, 2.) Taldeak kokagune horretan idatzitako oinaren pista bat eman beharko digu, guk oin hori zein den asma dezagun.
- 4.- Ondoren, beste taldearen txanda izango da.

Ezin dira oinak errepikatu!

	-ELA	-INA	-URRA	-ETA
1				
2				
3				
4				

	-ELA	-INA	-URRA	-ETA
1				
2				
3				
4				



Karta jokoa hartu eta “komunikazioa eta aparailuak” gaiaren inguruan **puntuka** ariko gara, **8ko txikian**. Ariketa molde bat baino gehiago eskainiko zaizkigu:
puntu erdika bertsoa osatzea,
lehen puntuari segida ematea **3 oinekin** eta,
4 oinak emanda, **puntuka** bertsoa osatzea.

